

AURKIBIDEA

1.- HELBURUA ETA IRISMENA

2.- GARAPENA

2.1.- SEGURTASUN-POLITIKA

2.2.- INFORMAZIOAREN SEGURTASUN-POLITIKAREN PRINTZPIOAK

3.- ERREGISTROA ETA ARTXIBOA

4.- ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK

NORI BANATUA:					
Presidenteari	Zuzendari nagusiari	Eragiketa, Merkataritza, Logistika eta Zaintza Estrategikoko zuzendariari	Idazkari nagusiari	Talentu, Antolaketa eta Marketin Korporatiboko zuzendariari	Ekonomia eta Finantzetako zuzendariari eta Europako Funtzen Koordinazioari
Sailletako buruei	Dibisioetako buruei	Unitateetako buruei			
NORK EGINA: Negozio Garapeneko eta Intermodalitateko buruak		NORK BERRIKUSIA: Eragiketa, Merkataritza, Logistika eta Zaintza Estrategikoko zuzendariak		NORK ONARTUA: Sistemak eta Kudeaketa Kontroleko buruak	

1.- HELBURUA ETA IRISMENA

BILBOKO PORTU AGINTARITZAK (BPA) Bilboko Portuko IOTSren administrazioan aplikatzen duen Trenbideetako Eragiketa Segurtasuneko Politika ezartzea da helburua.

Trenbide-segurtasun operazionalak erakunde osoan duen inplikazioa eta garrantzia modu formalean adieraztea, Estatuko eta Europako arau-esparrua betetzeko barne-konpromisoa indartuz, bere sarea administratzeko baldintzak eta antolamendu-estandarrak ezarriz.

Prebentzioan oinarritutako segurtasun-kultura sustatzea, bai erakunde mailan, bai maila indibidualean. Halakotzat joko da pertsonen indarguneen garapena azpimarratzen duena, akatsen prebentzioa helburu estrategiko bihurtuz, horrek eragin positiboa izan dezan, norbanakoaren bizitasuna eta hazkundera azpimarratu ditzan eta erakundeko kide izatearen zentzua areagotu dezan.

Trenbideetako Eragiketa Segurtasuneko Politika eremu funtzional guztiei, bertako eta kanpoko langile guztiei eta BPAREN trenbideetako eragiketa-segurtasunarekin lotutako jarduerari aplika dakieke. Kalte esanguratsuak gertatzeko arrisku txikienarekin egin behar dira, eta hori guztia TSKSn ezarritakoaren arabera kudeatuta.

2.- SEGURTASUN-POLITIKA ETA -KULTURA

2.1.- SEGURTASUN-POLITIKA

BPAREN segurtasun-politika Portu Agintaritza buru duten printzipio eta irizpideen multzoa da. Printzipio eta irizpide horiek eragiketa-segurtasunaren arloan jarduteko jarraibideak arautzen dituzte, BPAREN Misioa eta Ikuspegia eta haren jarraibide estrategikoak kontuan hartuz eta lehenetasun handiena pertsonen eta ondasunen segurtasunari esleituz. Hori guztia, jarduerak modu seguruan eta efizientean egiteko konpromisoa hartuz. Helburu nagusia izango da istripu eta gertakari oro saihestea eta, ezinezkoa denean, ondorioak murriztea.

Helburu hori lortzeko, Segurtasun Politikaren funtsezko zutabe hauek ezarri dira:

- Segurtasun-kulturaren ezarpena eta zabalkundea ziurtatzea BParen maila guztietan, prebentzioan, proaktibitatean eta langileen parte-hartzean oinarrituta.
- Ikuspegi sistematiko bat hartzea langileen parte-hartzea sustatzeko eta segurtasuna kudeatzeko sistemaren barruan giza faktoreak eta antolakuntzakoak kudeatzeko.
- Jarduerari eta eragiketari lotutako arriskuak kudeatzea, BParen esparru guztiak istripu-tasaren eta gertakari-tasaren mailak edo indizeak hobetzeko konpromisoa hartzera behartuz.
- Esperientziaren itzulerak ematen duen ikaskuntzatik abiatuta hobetzea, konfiantzazko, segurtasun positiboko eta etengabeko ikaskuntzako kultura sustatuz, langile guztiak segurtasuna garatzen laguntzera bultzatzeko.

Segurtasun Politika honako segurtasun-printzipio orokor hauen arabera eratzen da:

- Trenbide-zirkulazioaren segurtasunari eragiten dioten arriskuak identifikatzea, ebaluatzea eta minimizatzea, arrisku guztien kontrola bermatzeko.
- Trenbideko istripuak eta gorabeherak ahal den heinean prebenitzeko prozesu eraginkor bat ezartzea.
- Trenbide-zirkulazioan segurtasuna sustatuko duen kultura sustatzea, ageriko lidergo batekin eta erakunde barruko erantzukizun argi batekin.
- Pertsona bakoitzari prestakuntza egokia ematea, bere lana eta eginkizunak segurtasunez eta eraginkortasunez bete ditzan, indarrean dagoen erregelamenduzko eta legezko araudia errespetatuz. Halaber, langileen baldintza psikiko eta fisiko egokienak ebaluatzeko bitarteko egokiak jartzea.
- Trenbideko istripu eta gorabehera guztiak aztertzea eta ebaluatzea, errepikatzea saihesteko eta, ahal den heinean, gertakari horien ondorioak minimizatzen.
- Baldintza ez-seguruetan egiten den lan oro etengo duen kultura bat ezartzea, kausen jarraipena eta kontrola eginez.
- Segurtasun-helburu kuantifikagarriak ezartzea eta aurrerapenaren jarraipena egitea, auditorien eta txosten erregularren bidez.

- Indarrean dauden lege- eta arau-eskakizunak betetzea, eta Bilboko Portu Agintaritzaren trenbide-jardueren garapenean espektatiba horiek lortzea eta are gainditzea.
- Larrialdi-egoeretarako prozeduren eraginkortasuna eguneratzea eta egiaztatzea, trenbide-istripuak eta -gorabeherak saihesteko, horrela trenbide-jardueraren ondoriozko arriskuak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak hartu ahal izateko.
- Trenbide-jarduerarako erabilitako trenbide-azpiegiturak indarrean dagoen araudian eta legerian zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea, zirkulazio teknikoki segurua eta fidagarria ziurtatzeko.
- Portuko trenbide-azpiegiturak Adifek administratutako Interes Orokorreko Trenbide Sarearekin (IOTS) fisikoki eta funtzionalki lotzeko arauak Adifekin koordinatzea, trenbide-zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko.
- Barneko eta kanpoko komunikazio irekia eta gardena bermatzea.
- Ezarrita dauden Kalitate, Prebentzio eta Ingurumeneko prozedurak errespetatzea, eta trenbide-ingurunean ezarritako zerbitzu edo hornidura bakoitzerako dituen hornitzaileei eta azpikontrastei Bilboko Portu Agintaritzan aplikatzen diren prozedura operatibo eta tekniko egokiak betetzeko eskatzea.
- TSKSaren zaintza eta eraginkortasuna ziurtatzea, eta haren prozesu eta prozedura guztien aplikazio zuzena eta eraginkortasuna egiaztatzea.

2.2.- SEGURTASUN-KULTURA

BPAren jarduketaren zutabeetako bat segurtasunaren kultura positiboa eta bidezkoa ezartzea da. Kultura horren ezaugarriak dira segurtasunaren arloko kontzientziazioa, ebaluazioa eta ekintza bere esparru guztietan, eta erakunde osoarentzako komunikazio-estilo ireki eta garden batek babesten du, konfiantzazko giro bat sortuz. Giro horren barruan, pertsonak funtsezko informazioa ematen dute segurtasun-istripuak eta -gertakariak ikertzeko, norberaren akatsak barne.

Segurtasun-kulturaren arrakasta eta garrantzia hura erakundean hauteman, baloratu, lehenetsi eta errotzen den moduan islatzen da. Lorpen garrantzitsu hori bermatzeko, helburu hori lortzeko aukera emango duten ekintza sistematikoak sustatzen dira, honako hauen bidez:

- Segurtasun Politika langileen eta alderdi interesdun guztien eskura jartzea, haien ezagutza eta komunikazio-plan espezifikoek garapena ziurtatzeko, honako hauek gauzatu ahal izateko:
 - Hura ulertzea eta aplikatzea bermatzea.
 - Segurtasunaren kultura arriskuen pertzepziora eta kudeaketara bideratuta zabaltzea. Segurtasuna balio gisa komunikatu behar da, erakundearen maila eta antolamendu-arlo guztietan komunikazio-jardunaldiak eginez.
 - Segurtasunean eragina izan dezaketen egoerak identifikatzea eta konpontzea, haien prebentzio-ebaluazioa, tratamendua, zuzenketa eta kudeaketa garrantziaren arabera egin daitezela.
- Langile guztiek segurtasunaren aurkako balizko mehatxuak identifikatzen parte hartzea sustatzea.
- Eragiketan jardunbide egokiak eta ekintza selektiboak txertatzea eta zabaltzea, metatutako esperientzien ikaskuntza eta itzulera oinarri hartuta.
- Lidergoaren bidez lankidetzaren eta parte-hartzearen bultzatzea, komunikazio-bideak ezarriz langileek elkarri eragiteko eta helburuak lortzen eta segurtasuna etengabe hobetzen modu aktiboan esku hartzeko.

3.- ERREGISTROA ETA ARTXIBOA

Ez dagokio.

4.- ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK

Ez dagokio.